

AITZINA

Editorea: Fermin Munariz. Koordintzailea: Mariasun Monzón. Abolkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa: 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

XABIER LETONA LARRUNGO KOORDINATZAILEA

«Euskaldunok gure burua jantzi behar dugu»

1994. urtean Larrun itxi zenean, bertako langileek behin-behineko itxialdia zela ziur zeuden, eta denborak arrazoa eman die. Orain, bost urte geroago eta aukera ikusi dutenean, Larrun aldizkaria berriro Euskal Herriko kioskoetan aurki dezakegu.

hen argitaratzen zen moduan bi mila edo hiru mila ale banatzen ziren, eta orain hamar mila zabalduko dira hilerro. Horrez gain, Argiaren arpedun guztiak aldizkariaren batean beste osagarri bat jasotzen dute, eta hori ere inportantea da. Horrek ez du esan nahi horrela izango denik, baina momentuz horrela da. Sarritun gauzak ahal den moduan egiten dira.

Gaiei dagokienez, nola planteatu duzue aldizkari hau? Pentsamenduko gaiak kalera-tutoko ditugu, gure filosofia mugarik gabeko pentsamendua lantzea baita. Horretarako mahangururak planteatuko ditugu, monografikoak. Lehenengo zenbakian, urrian aterata zen alean, «Euskal historiografi» gaia planteatu genuen, eta oraingo honetan, azaroran aterako den alean, kooperatibei buruz hitz egingo dugu.


BEGOÑA SIMON

Nola sortu zen Larrun berriro ateratzeko ideia?

Aspalditik dago ideia hori, gehiago esango nuke, behin ere ez dugu pentsatu haren itxialdia betiko zenik. Arrazoi ekonomikoak direla medio, 1994. urtean itxi zen Larrun, baina beti pentsatu izan dugu ez plazaratzea behin-behinekoa zela. Orain, berriro argitaratzeko aukera txiki bat ikusi dugunean, berriro jarri gara lanean eta Larrunek berriro ikusi du kalea.

Oraingo honetan Argiarekin batera kaleratzen da, hilean behin eta Larrun mantxeta goialdean. Zergatik formatu berezi hau?

Horrela kaleratzea erazagoa delako. Alde batetik, modu honetan zabalkunde handiagoa dauka. Le-



Karlos Contrilla

Zenbat pertsona ari zarete lanean Larrunen?

Larrun egiteko ez dago plantila berezirik, Argiako plantilakok egiten dugu Larrun. Ni koordintatzailea naiz, eta lehen Larrunek zuen kolaboratzaileen multzoa ere ari da.

Nola ikusten du Larrunek bere etorkizuna?

Batetik, esperantza handiz, eta esaten dut hori, nire ustez, Argiakook Larrun berriro ateratzeko gogoia genuelako, eta, aukera ikusi dugunean, horixe egin dugu. Bestalde, zailtasunez ikusten dut, pentsamenduko gaiak sartzea eta sakontzea gauza erraza ez delako, eta, azkenik, baikortasunez. Larrun itxi zenetik beti egon da Larrun berriro ateratzeko animoak eman dituen jende multzo bat. Nire ustez, euskaldunok gure burua jantzi behar dugu, eta guk, Larrunek, zer esanik badugu horretan.

ZIRTOKA



Txillardegi

Milosevic lehendakari

Horretan dago, bai, Slobodan Milosevic «Gerla-Kriminal» deklaraturik ere, Belgradoko Jauregian beti agintari. Horra hor Garzontzako beste kasoa bat. Hots, berriro ere, lotsagabeki erakutsi du bere jokabidearen gakoia. Stalinen lerrotik orpo-orpo, ia-ia hil da «berbil-istripu» batean Draskovic bere etsai politikoa nagusia. «Istripuz», jakina, bere konatu bat eta hiru zandari bertan hilotzik gertatu direlarik... Harigaria. Hori zorte txarra!

Nork ez du gogoan Costa Graven «Zeta» film famatu hura? Nork ez, atzerago joanda, desagerketen olatu odoltsuak?

Lau gerla galduta dugu jadanik Milosevic-ek Jugoslavia barruko etsaien aurka. Eta sei bat atentatutan bizirik txiripaz zaurigabe gertatu ere bai, 1989az geroztik.

Orain dela 4 hilabete, besterik ezean, Kossovo-tik irten behar izan zuen indar okupatzaileekin. Baina onazeak, populu-deportazioak, hilketak, ez ditu jadanik inork konponduko. Sarraskiak buruturik, orain «bakea»... eta ahaztu egin beharko.

Amerikarrek eta «Nazioarteko Ordena» famatuaren defendatzaileek bonbardaketak burutu zituzten. Gertakari triste haiek gogoratzea alfer lana litzateke: ongi dituzke gogoan irakurleak.

Kossovarrak serbiarren kontra hain zuzen altxatu zirela ahazturik, «egura jugoslaviar guztentzat». Eta aurretik eraso nagusiak... Kossoven, hain zuzen ere. Serbiar zapalketaz gain, horretara, NATO-ren «laguntza» gaineratuz...

Ekonomia xehatua. Kossovo-koa batez ere. Nork ordainduko? Jugoslaviar-ohi guztiak, jakina. Baina, halaz ere, nork jasango bereziki heldu den negute laza?

Oso «ezkorrak» omen gara begien aurrean dugun «Ordenu» horretiko. Baina garbiki esan dute: Jugoslavia-ko mugak sakraturik dira. Erusiakoak sakraturik diren bezalaxe.

Kossovarrak? Txetxenarrak? Connas-pas. Baikor agertzen direnien beren baikorkiaren gakoia azaltzea eskertuko genieke.

AITZINDARIAK

PIARRRES LARZABAL 1 9 1 5 1 9 8 8



LERRON HAU IKIDATEN DITUZ 1977KO ABENDUAN, IWUSIE ZERTAN DEN ORAINDIK GURE EUSKADI, EZ GIRA ESPANIAREKIN BAKEA FINKATZEKO BEZPERAN...



Gorri hartan, usu bantintuen hilen nindutelako mehatxua. Hottakotz armatua ibiltzen nintzen...

...AZKEN OHARMEN BAT: GURE GAZTERIA EZ DEZAGUN USTELTZERAT UTZ DIRUKERIAN, BIRGUNKERIAN ETA HUTSKERIAN. GOGOR DITELA GURE GAZTEAK, GOGOZ BEZALA GORPUTZEZ...




Kofesatu nuen esku eskuinarekin bene dikeko ezkerrean nekala pixtola tiratzeko prest...

... EUSKADIKO TRATULARIAK ARI DIRA MADRILEKIN TRATUAN BAKEA EGITEKO. TRATUA NOLA-BAKIA ETA GURE GEROA HALAKO: GAURKO TRATU TXARRAK GURE HAURRENTZAT BIHAR NEGARRAK...



Arrots batez gizon susmagarri bat etorri zitzaizkidan, eskatuz nahi zuela kofesatu...

...ETA HUNTAN IXILTZEN NAIZ, GUDARI LAGUNAK: ZUENTZAT BIHOTZA MAITASUNEZ BETEA, ZUEKIN NAGOLA, JAINKOAK NAHI DUEN ARTINO, BEREZ ETA ABERTZALE! AMEN >



Nere begiak erne zarduzin harrean eskuin zainit, Pixtola hartzen bazuen, lehen hiroa berari emateko...